

DIPUTACION FORAL DE ALAVA ARABAKO FORU ALDUNDIA

DISPOSICIONES Y RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

- Decretos Forales del Consejo de Diputados

343

DECRETO FORAL 1/2000, del Consejo de Diputados de 18 de enero, que introduce modificaciones puntuales en los Decretos que desarrollan las Normas Forales reguladoras del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades.

El presente Decreto Foral tiene por objeto modificar el Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, (por el que se desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas), el Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero (que aprueba la normativa a aplicar por personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales) y el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo (por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, que aprobó la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades).

Las modificaciones que se introducen son las siguientes. La primera de ellas consiste en actualizar el importe exonerado de gravamen del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente a gastos de manutención cuando el desplazamiento se produce al extranjero.

Dentro de las obligaciones formales de información se incluye tanto a las entidades receptoras de donativos que generen derecho a la deducción por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como al Organismo Nacional de Loterías y Apuestas del Estado, las Comunidades Autónomas, la Cruz Roja y la Organización Nacional de Ciegos respecto de los premios que hayan satisfecho y se encuentren exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en cuanto excedan de la cuantía que fije la Administración Tributaria. Igualmente, y respecto a las obligaciones de información de las entidades gestoras de Instituciones de Inversión Colectiva se señala que estas obligaciones se entienden cumplidas con la presentación del resumen anual de retenciones, siempre y cuando conste en el mismo la misma información.

El artículo 3 del Decreto Foral añade a las rentas sometidas a retención o ingreso a cuenta, a los rendimientos de actividades forestales. El porcentaje de retención se fija en el 2% de los ingresos íntegros satisfechos, con excepción de las subvenciones corrientes y de capital y de las indemnizaciones.

Se suprime la obligación de retención a cargo de las entidades depositarias de sociedades de inversión mobiliaria de capital variable, con lo que, en caso de transmisión o reembolso de las acciones de éstas, será el socio o partícipe quien deba efectuar un pago a cuenta.

Se fija el porcentaje general de retención a aplicar sobre los rendimientos del capital mobiliario en el 18%.

Otra de las modificaciones establecidas consiste en añadir tres nuevas excepciones a la obligación de retener e ingresar a cuenta.

Igualmente se establece en el 18% el tipo de retención a aplicar sobre los rendimientos de actividades profesionales. Este porcentaje será del 9% en el período impositivo de inicio de actividades y en los dos siguientes.

Finalmente, se fija también en el 18% el porcentaje de retención a practicar sobre los premios en metálico.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

XEDAPENAK ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

- Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

343

1/2000 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluak urtarrilaren 18an emana. Gaia: Aldaketak egitea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga arautzen dituzten foru arauak garatzeko dekretuetan.

Foru Dekretu honen helburua ondoren aipatuko diren hiru foru dekretuetan aldaketak egitea da. Hauetxek dira aldatzen diren foru dekretuak: lehenengoa, ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretua, zeinaren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, abenduaren 16ko 35/1998 zenbakikoa, zati batzuetan garatu baitzen; bigarrena, urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, zeinaren bidez atxikipek edo konturako sarre-erak egitera behartuta dauden pertsonen eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu baitzen; eta hirugarrena, maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretua, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren araudia onartzen duen Foru Araua, uztailaren 5eko 24/1996 zenbakikoa, garatu baitzen erregelamendu bidez.

Aldaketa horiek zertan diren azalduko da laborri sarrera honetan. Lehenengo foru dekretua dela eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan atzerrirako bidaiari mantenu gastuengatik kargatzetik jaregiten den zenbatekoa eguneratu egiten da.

Eta dekretu horri berari dagokionez, informazio betebeharraren formalen barruan sartzen dira bai dohaintzak jasotzen dituzten entitateak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kenkarirako eskubidea sortzen dutenak, bai Estatuaren Loteria eta Apostuen Erakunde Nazionala, Autonomia Erkidegoak, Gurutze Gorria eta Itsuen Erakunde Nazionala, baldin eta sari horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita badaude eta zerga administrazioak finkatzen duen zenbatekoa gainditzen badute. Era berean, inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten entitateen informazio betebeharreari dagokionez, atxikipenen urteko laborpena aurkeztea nahikoa dela ulertuko da, betebeharrak horiek konplutuztat jotzeko, laborpen horretan informazio hori jasota badago.

Foru Dekretu honen 3. artikulua goian aipatutako bigarren dekretuan egiten ditu aldaketak: basogintzako jardueren etekinak sartzen ditu atxikipena edo konturako sarrera duten errentetan. Sarrera ordaindu guztien %2 izango da atxikipen ehuneko, alde batera utzirik ohiko dirulaguntzak, kapital dirulaguntzak eta kalteordainak.

Bigarren horretan bertan, atxikipena egiteko betebeharra kentzen zaie entitate gordailu-egileei, kapital aldagarria duten sozietate inbertsio higigarrienak baldin badira; eta, beraz, horien akzioak eskualdatu edo itzuliz gero, bazkideak edo partaideak egin beharko du konturako sarrera.

Era berean, kapital higigarrien etekinei aplikatu beharreko atxikipen ehuneko orokorra %18an finkatzen da.

Goian aipatutako hirugarren foru dekretuan honako aldaketak egiten dira: atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharratik beste hiru kasu salbuesten dira, batetik.

Beste batetik, lanbide jardueren etekinei aplikatuko beharreko atxikipen tasa %18an ezartzen da, jardueri ekiteko zergaldian eta hurrengo bietan %9 izango dela ehuneko hori.

Eta azkenik, esku-diruz ordaindutako sarietan %18 izango da orobat atxikipen ehuneko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak egindako txostenak ikusirik.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

DISPONGO:

CAPITULO I

Modificación del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Artículo 1.- Modificación del apartado A.3. a).1º del artículo 6 del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio.

El apartado A.3.a).1º del artículo 6 del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedará redactado como sigue:

"1º. Cuando se haya pernoctado en municipio distinto del lugar de trabajo habitual y del que constituya la residencia del percceptor, las siguientes:

- Por gastos de estancia, los importes que se justifiquen.
- Por gastos de manutención, 8.300 pesetas (49,88 euros) diarias, si corresponden a desplazamiento dentro del territorio español, o 15.200 pesetas (91,35 euros) diarias si corresponden a desplazamiento a territorio extranjero."

Artículo 2.- Modificación del artículo 61 del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio.

El artículo 61 del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedará redactado como sigue:

"Artículo 61. Otras obligaciones formales de información.

1.- Las entidades que concedan préstamos hipotecarios para la adquisición de viviendas deberán presentar en los treinta primeros días naturales del mes de enero del año inmediato siguiente, una declaración informativa de dichos préstamos, con identificación, con nombre y apellidos y número de identificación fiscal, de los prestatarios de los mismos, importe total del préstamo, cantidades que éstos hayan satisfecho en el ejercicio en concepto de intereses y de amortización del capital e indicación del año de constitución del préstamo y del período de duración del mismo

2.- Las entidades perceptoras de donativos que den derecho a deducción por este Impuesto deberán presentar, en los treinta primeros días naturales del mes de enero del año inmediato siguiente, una declaración informativa de donaciones, en la que además de sus datos de identificación y de la indicación de si se hallan o no acogidas al régimen de deducciones establecido por la Norma Foral 13/1996 de 24 de abril de incentivos fiscales por la participación privada en actividades de interés general, en la que consten los siguientes datos referidos a los donantes:

- a) Nombre y apellidos.
- b) Número de identificación fiscal.
- c) Importe del donativo.
- d) Inclusión o no del donativo en las actividades o programas prioritarios.

3.- Las entidades gestoras de Instituciones de Inversión Colectiva deberán presentar, en los treinta primeros días naturales del mes de enero del año inmediato siguiente, declaración informativa de las enajenaciones de acciones o participaciones llevadas a cabo por los socios o partícipes, en la que consten los siguientes datos:

- a) Nombre y apellidos y número de identificación fiscal del socio o partícipe.
- b) Valor de adquisición y de enajenación de las acciones o participaciones.
- c) Período de permanencia de las acciones o participaciones en poder del socio o partícipe.

Esta obligación se entenderá cumplida con la presentación del resumen anual a que se refiere el artículo 33.2 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero (que aprueba la normativa a aplicar

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, abenduaren 16ko 35/1998 zenbakikoa, garatu zuen zati batean.

1. artikulua.-Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuaren 6. artikuluko A.3 a).1.a. atala aldatzea.

Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuaren 6. artikuluko A.3.a).1.a. atala honela idatzirik geratuko da hemendik aurrera Foru Dekretu hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, abenduaren 16ko 35/1998 zenbakikoa, aldatu zuen zati batean. Hona:

"1.a.- Gaua bai ohiko lantokiaren udalerritik kanpo, bai jasotzaileak egoitza duen udalerritik kanpo eman bada, honako hauek:

- Ostatu gastuengatik, frogatzen diren zenbatekoak.
- Mantenu gastuengatik, 8.300 pezeta (49,88 euro) eguneko, bidaia Espainiaren barrukoa bada, edo 15.200 pezeta (91,35 euro) eguneko, bidaia atzerrira egin bada."

2. artikulua.- Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuaren 61. artikulua aldatzea.

Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuaren 61. artikulua honela idatzirik geratuko da hemendik aurrera. Foru Dekretu hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua, abenduaren 16ko 35/1998 zenbakikoa, aldatu zuen zati batean. Hona:

"61. artikulua.- Informazioa emateko beste betebeharrak formalak.

1.- Etxebizitzak erosteko hipoteka maileguak ematen dituzten entitateek mailegu horien informaziozko aitortpen bat egin eta hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko dute. Aitortpen horretan honako datu hauek jasotzeko beharko dituzte: mailegua jaso dutenen identifikazioa (izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia), maileguaren zenbateko osoa, ekitaldian interesengatik eta kapitala amortizatzeke ordaindu diren zenbatekoak, zein urtetan eratu den mailegua, eta zein iraunaldia duen.

2.- Zerga honetan kenkaria izateko moduko dohaintzak jasotzen dituzten entitateek dohaintza horiei buruzko aitortpen informaziozko bat egin eta hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko dute. Aitortpen horretan ondoren zerrendatzen diren datuak jaso beharko dituzte, identifikazio datuak ematez gain eta dohaintzak kenkariaren errejimenez barruan dauden ala ez jakinarazteaz gain. Kenkariaren errejimena apirilaren 24ko 13/1996 Foru Arauan finkaturik dago (partaidetza pribatuari interes orokorreko jardueretan esku hartzeagatik ematen zaizkion zerga pizgarriak jasotzen dira bertan). Hona jaso beharreko datuak:

- a) Izen-deiturak.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Dohaintzaren zenbatekoa.
- d) Dohaintza lehentasunezko programetan edo jardueretan sartzen den ala ez.

3.- Inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten entitateek bazkideek edo partaideek burutu dituzten akzio edo partaidetzen besterentzei buruzko aitortpen informaziozko bat egin eta hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar eguneko epearen barruan aurkeztu beharko dute. Aitortpenean honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- a) Bazkide edo partaidearen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Akzioen edo partaidetzen eroste balioa eta besterentze balioa.
- c) Zein alditan eduki dituen bazkideak edo partaideak akzio edo partaidetzak.

Betebeharrak hori konplitu dela ulertuko da urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 33. artikuluko 2. puntuan aipatutako urteko laburpena aurkeztean, laburpen horretan aurreko letre-

por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales), siempre y cuando conste en el mismo la información prevista en las letras anteriores.

4. El Organismo Nacional de Loterías y Apuestas del Estado, las Comunidades Autónomas, la Cruz Roja y la Organización Nacional de Ciegos, deberán presentar, en los treinta primeros días naturales del mes de enero del año inmediato siguiente, una declaración informativa de los premios que hayan satisfecho exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en la que, además de sus datos identificativos, podrá exigirse que conste en ella la identificación, con nombre y apellidos y número de identificación fiscal, de los perceptores, así como el importe o valor de los premios recibidos por los mismos que excedan de la cuantía que a estos efectos fije la Diputación Foral de Alava.

5.- Las declaraciones informativas a que se refieren los apartados anteriores se efectuarán en la forma y lugar que determine el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, quien podrá determinar el procedimiento y las condiciones en que proceda su presentación en soporte directamente legible por ordenador o por medios telemáticos."

CAPITULO II

Modificación del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales.

Artículo 3.- Modificación de la letra b) del apartado 1 del artículo 3 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero.

La letra b) del apartado 1 del artículo 3 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedará redactado como sigue:

"b) Los rendimientos de las siguientes actividades económicas:

- Los rendimientos de actividades profesionales.
- Los rendimientos de actividades agrícolas y ganaderas.
- Los rendimientos de actividades forestales."

Artículo 4.- Modificación del artículo 4.2.c) del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero.

La letra c) del apartado 2 del artículo 4 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedará redactada como sigue:

"c) En las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, deberán practicar retención o ingreso a cuenta las siguientes personas o entidades:

1º En el caso de reembolso de las participaciones de fondos de inversión, las sociedades gestoras.

2º En el caso de instituciones de inversión colectiva domiciliadas en el extranjero, las entidades comercializadoras o los intermediarios facultados para la comercialización de las acciones o participaciones de aquéllas y, subsidiariamente, la entidad o entidades encargadas de la colocación o distribución de los valores entre los potenciales suscriptores, cuando efectúen el reembolso.

3º En los supuestos en los que no proceda la práctica de retención conforme a los apartados anteriores, estará obligado a efectuar un pago a cuenta el socio o partícipe que efectúe la transmisión u obtenga el reembolso. El mencionado pago a cuenta se efectuará de acuerdo con las normas contenidas en los artículos 14, 15 y 16 de este Decreto Foral."

Artículo 5.- Modificación del artículo 8 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero.

El artículo 8 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obli-

tan esandako informazioa jasota baldin badago. Foru dekretu horren bidez kapital errentetan eta hainbat ondare irabazitan atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dauden pertsona eta entitateei aplikatu beharreko araudia onartu zen.

4.- Estatuaren Loteria eta Apostuen Erakunde Nazionalak, Autonomia Erkidegoek, Gurutze Gorriak eta Itsuen Erakunde Nazionalak eman dituzten sariei buruzko aitorten informaziozko bat egin eta hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko dute, sari horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita badaude. Aitorpen horretan identifikazio datuez gain, sari jasotzaileen identifikazioa ere eska daiteke, izen-deitura eta identifikazio fiskaleko zenbakiarekin, bai eta jasotako sarien zenbatekoa edo balioa ere, Arabako Foru Aldundiak ondorio horietako finkatzen duen zenbatekotik gorakoak badira.

5.- Aurreko ataletan aipatzen diren aitorten informatiboak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehazten duen modu eta lekuan egin beharko dira. Era berean, aitortenak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriz edo baliabide telematikoz nola eta zein kasutan aurkeztu behar den zehaz dezake."

II. KAPITULUA

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen.

3. artikulua.-Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 3. artikuluko 1. atalaren b) letra aldatzea.

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 3. artikulua 1. ataleko b) letra honela idatzirik geratuko da hemendik aurrera. Foru dekretu horren bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen. Hona:

"b) Honako ekonomi jarduera hauen etekinak:

- Lanbide jardueren etekinak.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako etekinak.
- Basogintzako jardueren etekinak."

4. artikulua.-Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 4. artikuluko 2.c) puntua aldatzea.

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 4. artikulua 2. ataleko c) letra honela idatzirik geratuko da hemendik aurrera. Foru dekretu horren bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen. Hona:

"c) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordetzatzen duten akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean, honako pertsona edo entitateek egin beharko dute atxikipena edo konturako sarrera:

1.a.- Inbertsio fondoan partaidetzen diru-itzulketetan, sozietate kudeatzaileek.

2.a.- Inbertsio kolektiboko erakundeek helbidea atzerrian badute, entitate merkaturatzaileek edo akzioak zein partaidetzak merkaturatzeko ahalmena duten artekariak, eta, subsidiarioki, baloreak harpidedun posibileen artean saltzeko edo banatzeko ardura duten entitateek, diru-itzulketa egitean.

3.a.- Atxikipena aurreko puntuetan azaldu bezala egin behar ez bada, eskualdaketa egiten duen edo diru-itzulketa eskuratzen duen bazkide edo partaidea egongo da behartuta konturako ordainketa egitera. Konturako ordainketa hori Foru Dekretu honen 14, 15 eta 16. artikuluetako arauari jarraituz egin beharko da."

5. artikulua.-Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 8. artikulua aldatzea.

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 8. artikulua hone- la idatzirik geratuko da hemendik aurrera. Foru dekretu horren

gadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedará redactado como sigue:

"Artículo 8.- Importe de las retenciones sobre rendimientos del capital mobiliario.

1.- La retención a practicar sobre los rendimientos del capital mobiliario será el resultado de aplicar a la base de retención el porcentaje del 18%.

2.- Este tipo de retención se dividirá por dos cuando se trate de rendimientos a los que sea de aplicación la deducción prevista en el artículo 83 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, procedentes de sociedades que operen efectiva y materialmente en Ceuta o Melilla y con domicilio y objeto social exclusivo en dichos territorios."

Artículo 6.- Modificación del artículo 13 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero.

1.- El apartado 1 del artículo 13 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedará redactado como sigue:

"1. Cuando los rendimientos sean contraprestación de una actividad profesional, se aplicará el tipo de retención del 18% sobre los ingresos íntegros satisfechos.

No obstante, en el caso de contribuyentes que inicien el ejercicio de actividades profesionales, el tipo de retención será del 9% en el periodo impositivo de inicio de actividades y en los dos siguientes, siempre y cuando no hubieran ejercido ninguna actividad profesional en el año anterior a la fecha de inicio de las actividades.

Para la aplicación del tipo de retención previsto en el párrafo anterior, los contribuyentes deberán comunicar al pagador de los rendimientos la concurrencia de dicha circunstancia, quedando obligado el pagador a conservar la comunicación debidamente firmada.

El tipo de retención será del 9% en el caso de rendimientos satisfechos a:

- Representantes garantizados de "Tabacalera, Sociedad Anónima".
- Recaudadores municipales.
- Agentes de seguros y corredores de seguros que utilicen los servicios de subagentes o colaboradores mercantiles.
- Delegados territoriales procedentes del extinguido Patronato de Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas integrado en el Organismo Nacional de Loterías y Apuestas del Estado por Real Decreto 904/1985, de 11 de junio.

Estos porcentajes se dividirán por dos cuando los rendimientos tengan derecho a la deducción en la cuota prevista en el artículo 83 de la Norma Foral de Impuesto."

2.- Se añade un apartado 5 al artículo 13 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales que tendrá la siguiente redacción:

"5. Cuando los rendimientos sean contraprestación de una actividad forestal, se aplicará el tipo de retención del 2% sobre los ingresos íntegros satisfechos, con excepción de las subvenciones corrientes y de capital y de las indemnizaciones."

Artículo 7.- Modificación del artículo 17 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero.

El artículo 17 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedará redactado como sigue:

"Artículo 17.- Importe de las retenciones sobre premios. La retención a practicar sobre los premios en metálico será del 18% de su importe."

bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen. Hona:

"8. artikulua.- Kapital higigarrien etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1.- Kapital higigarrien etekinen gainean egin beharreko atxikipena hauxe izango da: atxikipen oinarriari %18ko ehuneko aplikatu eta ateratzen dena.

2.- Atxikipen tasa hori bitan zatituko da, etekinek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 83. artikuluan jasotzen duen kenkaria aplikatzeko badute eta jatorria Ceuta edo Melillan zinez eta materialki diharduten sozietateetan badute. Sozietate horiek helbidea eta objektu soziala lurralde horietan izan behar dituzte nahitaez."

6. artikulua.-Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 13. artikulua aldatzea.

1.-Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 13. artikuluan 1. atala honela idatzirik geratuko da hemendik aurrera. Foru dekretu horren bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen. Hona:

"1.- Etekinak lanbide jarduera baten kontraprestazioa direnean, %18ko atxikipen tasa aplikatuko zaie ordaindutako sarrera osoei.

Hala ere, lanbide jardueran hasten diren zergadunen kasuan, atxikipen tasa %9 izango da jarduerai ekiten zaien zergaldian eta hurrengo bietan, jarduerai ekin aurreko urtean inolako lanbide jardueratan aritu ez badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek kasu horretan daudela jakinarazi beharko diote etekinen ordaintzaileari. Ordaintzaileak komunikazio hori gorde beharko du, behar bezala izenpeturik.

Ondoren aipatzen direnei ordaindutako etekinen kasuan, %9ko atxikipen tasa aplikatuko da:

- "Tabacalera, Sociedad Anónima" baltzuaeren ordezkari bermatuei.
- Udal diru-biltzaileei.
- Aseguru agenteei eta aseguru artekariei, azpi-agenteen edo merkataritza-laguntzaileen zerbitzua erabiltzen badute.
- Desagertutako "Patronato de Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas" etik datozen lurralde-ordezkariei. Patronatu hori Estatuaren Loteria eta Apostuen Erakunde Nazionallean sartu zen ekainaren 11ko 904/1985 Errege Dekretuaren bidez.

Ehuneko horiek bitan zatituko dira, etekinek Zergaren Foru Arauaren 83. artikuluan ezarritako kuotan kenkaria izateko esku-bidea badute."

2.-Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 13. artikuluari 5. atal bat gaineratzen zaio. Foru dekretu horren bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen. Hona:

"5.- Etekinak baso lan baten kontraprestazioa denean, %2ko atxikipen tasa aplikatuko zaie egindako sarrera osoei, ohiko dirulaguntzak, kapital dirulaguntzak eta kalte-ordainak alde batera utzirik."

7. artikulua.-Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 17. artikulua aldatzea.

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 17. artikulua ondoren agertzen den bezala geratuko da idatzirik hemendik aurrera. Foru dekretu horren bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen. Hona:

"17. artikulua.- Sarien gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Esku-dirutan ordaindutako sarien gainean egin beharreko atxikipena haien zenbatekoaren %18 izango da."

Artículo 8.- Modificación del artículo 19 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero.

El artículo 19 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedará redactado como sigue:

“Artículo 19.- Importe de las retenciones sobre otras rentas.

1.- La retención a practicar sobre los rendimientos procedentes de la cesión del derecho a la explotación del derecho de imagen a que se refiere el artículo 3.2.b) de este Reglamento, cualquiera que sea su calificación, será el resultado de aplicar el tipo de retención del 20% sobre los ingresos íntegros satisfechos.

2.- La retención a practicar sobre los rendimientos de los restantes conceptos previstos en el artículo 3.2.b) de este Reglamento, cualquiera que sea su calificación, será el resultado de aplicar el tipo de retención del 18% sobre los ingresos íntegros satisfechos.”

CAPITULO III

Modificación del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, que aprobó la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

Artículo 9.- Modificación del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo.

Se modifican, en los términos que a continuación se indican, los siguientes preceptos del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

1.- Se añaden tres nuevos párrafos s), t) y u) al artículo 51, constituyendo tres nuevas excepciones a la obligación de retener y de ingresar a cuenta, con la siguiente redacción:

“s) Las rentas obtenidas por los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades procedentes de Deuda emitida por las Administraciones Públicas de países de la OCDE y activos financieros negociados en mercados organizados en dichos países.

No obstante, las entidades de crédito y demás entidades financieras que formalicen con sus clientes contratos de cuentas basadas en operaciones sobre los activos financieros a que se refiere el párrafo precedente, estarán obligadas a retener respecto de los rendimientos obtenidos por los titulares de las citadas cuentas.

Las entidades financieras a través de las que se efectúe el pago de intereses de los valores comprendidos en esta letra o que intervengan en la transmisión, amortización o reembolso de los mismos, estarán obligadas a calcular el rendimiento imputable al titular del valor e informar del mismo tanto al titular como a la Administración tributaria a la que, asimismo, proporcionarán los datos correspondientes a las personas que intervengan en las operaciones antes enumeradas.

El Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos podrá establecer el procedimiento para hacer efectiva la exclusión de retención regulada en la presente letra.

t) Las rentas derivadas de la transmisión o reembolso de acciones o participaciones representativas del capital o patrimonio de instituciones de inversión colectiva obtenidas por:

1º. Las sociedades de inversión mobiliaria de fondos, de capital fijo o variable, y los fondos de inversión mobiliaria de fondos, previstos en el artículo 23 bis de la Ley 46/1984, de 26 de diciembre, reguladora de las instituciones de inversión colectiva.

2º. Las sociedades de inversión mobiliaria subordinadas y los fondos de inversión mobiliaria subordinados previstos en el artículo 23 bis de la Ley 46/1984, de 26 de diciembre, reguladora de las instituciones de inversión colectiva.

u) Las cantidades satisfechas por entidades aseguradoras a los fondos de pensiones como consecuencia de aseguramiento de planes de pensiones.”

8. artikulua.- Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 19. artikulua aldatzea.

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 19. artikulua ondoren agertzen den bezala geratuko da idatzirik hemendik aurrera. Foru dekretu horren bidez atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek kapital errentetan edo hainbat ondare irabazietan aplikatu beharreko araudia onartu zen. Hona:

“19. artikulua.- Beste errenten gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1.- Irudia ustiatzeko eskubidearen lagapenez sortzen diren etekinetan egin beharreko atxikipena hauxe izango da, berdin dela zein den haren sailkapena: egindako diru-sarrera guztiei %20ko atxikipen tasa aplikatetik ateratzen dena. Eskubide horren ustiapena Erregelamendu honen 3. artikuluko 2.b) puntuan aipatzen da.

2.- Erregelamendu honen 3. artikuluko 2.b) puntuan aipatutako gainerako kontzeptuen etekinetan egin beharreko atxikipena, berdin dela zein den haien sailkapena, egindako diru-sarrera guztiei %18ko atxikipen tasa aplikatetik ateratzen dena izango da.”

III. KAPITULUA

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horrek Sozietateen gaineko Zergaren araudia onartzen duen Foru Araua, uztaillaren 5eko 24/1996 zenbakikoa, garatu zuen erregelamendu bidez.

9. artikulua.- Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretua aldatzea.

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuan zenbait puntu aldatzen dira jarraian azalduko den moduan. Foru dekretu horren bidez Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua, uztaillaren 5eko 24/1996 zenbakikoa, garatu zen erregelamendu bidez.

1.- Hiru paragrafo gaineratzen zaizkio 51. artikuluari, atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharrean beste hiru salbuespen jasotzeko. Hona hiru kasu horiek:

“s) Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek lortutako errentak, ELGEko herrialdeetako administrazio publikoek jaulkitako zorretik baldin badatzo edo herrialde horietako merkatuetan negoziatutako finantza-aktiboetatik badatzo.

Hala ere, kreditu entitateak eta bestelako finantza entitateak behartuta egongo dira atxikipena egitera, bezeroekin kontu-kontratuak egin eta kontratu horiek aurreko paragrafoan aipatutako finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarriturik badaude. Atxikipena kontu horien jabeek lortzen dituzten etekinekiko egin beharko da.

Letra honetan aipatutako baloreen interesak ordaintzen dituzten finantza entitateak edo balore horien eskualdaketan, amortizazioan edo itzulketan esku hartzen dutenak behartuta egongo dira balorearen jabeari egotz dakioken etekina kalkulatzer eta etekin horren berri bai jabeari bai zerga-administrazioari ematera. Zerga-administrazioari, horretaz gain, arestian esandako eragiketetan parte hartu duten pertsonen datuak eman beharko dizkiote.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak prozedura finkatu ahal izango du letra honetan araututako atxikipenetik salbuesteko.

t) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzen duten akzio edo partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz sortutako errentak, honako hauek baldin badituzte iturri:

1.a.- Fondoan inbertsio higigarrien sozietateak, bai kapital finkokoak edo aldagarrikoak, eta fondoan inbertsioen higigarrien fondoak. Inbertsio kolektiboko erakundeak arautzen dituen Legeak, abenduaren 26ko 46/1984 zenbakikoak, 23 bis artikuluan aipatzen ditu.

2.a.- Inbertsio higigarrien sozietate menpekoak eta inbertsio higigarrien fondo menpekoak. Inbertsio kolektiboko erakundeak arautzen dituen Legeak, abenduaren 26ko 46/1984 zenbakikoak, 23 bis artikuluan aipatzen ditu.

u) Aseguru etxeek pentsio fondoei emandako zenbatekoak, pentsio planak aseguratzegatik ematen dira.”

2.- El apartado 6 del artículo 52 quedará redactado como sigue:

"6. En las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas de capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, deberán practicar retención o ingreso a cuenta las siguientes personas o entidades:

1º. En el caso de reembolso de las participaciones de fondos de inversión, las sociedades gestoras.

2º. En el caso de instituciones de inversión colectiva domiciliadas en el extranjero, las entidades comercializadoras o los intermediarios facultados para la comercialización de las acciones o participaciones de aquéllas y, subsidiariamente, la entidad o entidades encargadas de la colocación o distribución de los valores entre los potenciales suscriptores, cuando efectúen el reembolso.

3º. En los supuestos en los que no proceda la práctica de retención conforme a los apartados anteriores, estará obligado a efectuar un pago a cuenta el socio o participe que efectúe la transmisión u obtenga el reembolso. El mencionado pago a cuenta se efectuará de acuerdo con las normas contenidas en los artículos 54.4, 55.3 y 56.3, de este Reglamento."

3.- El artículo 56 quedará redactado en los siguientes términos:

"Artículo 56.- Porcentaje de retención e ingreso a cuenta.

1. El porcentaje al que se debe efectuar la retención o el ingreso a cuenta será, con carácter general, el 18%.

2. En el caso de arrendamiento y subarrendamiento de inmuebles urbanos este porcentaje será el 17%.

Este porcentaje se dividirá por dos cuando se trate de rentas procedentes de inmuebles urbanos situados en Ceuta, Melilla o sus dependencias, obtenidas por entidades domiciliadas en dichos territorios o que operen en ella mediante establecimiento o sucursal.

3. En el caso de transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva, será el 20%.

4. En el caso de rentas procedentes de la cesión del derecho a la explotación de la imagen o del consentimiento o autorización para su utilización, será el 25 %."

Disposición transitoria única. Plazo de renunciaciones y revocaciones a los regímenes especiales simplificado y de la agricultura, ganadería y pesca del Impuesto sobre el Valor Añadido.

1. El plazo de renunciaciones, al que se refiere el artículo 33.2, párrafo segundo, Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, así como la revocación de las mismas, que deben surtir efectos para el año 2000, comprenderá hasta el 31 de marzo del año 2000.

Lo dispuesto en el párrafo anterior debe entenderse sin perjuicio de las renunciaciones previstas en el artículo 33.2, párrafo tercero, del citado Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

2. Las renunciaciones presentadas, para el año 2000, a los regímenes especiales simplificado y de la agricultura, ganadería y pesca del Impuesto sobre el Valor Añadido, durante el mes de diciembre de 1999, se entenderán presentadas en período hábil.

No obstante, los sujetos pasivos afectados por lo dispuesto en el párrafo anterior, podrán modificar su opción en el plazo previsto en el apartado 1 anterior.

Disposición derogatoria

Desde el momento en que empiece a surtir efectos el presente Decreto Foral, quedarán derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo en él establecido.

Disposición final única.- Entrada en vigor.

Lo dispuesto en este Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y surtirá efecto desde el 1 de enero del año 2000.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de enero de 2000.— El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBIA.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

2.- Honela idatzirik geratuko da 52. artikularen 6. puntua hemendik aurrera:

"6.- Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzaren duten akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean, honako pertsona edo entitateek egin beharko dute atxikipena edo konturako sarrera:

1.a.- Inbertsio fondoan partaidetzen diru-itzulketetan, sozietate kudeatzaileek.

2.a.- Inbertsio kolektiboko erakundeek helbidea atzerrian badute, entitate merkaturatzaileek edo akzioak zein partaidetzak merkaturatzeko ahalmena duten artekariak, eta, subsidiarioki baloreak harpidedun posibleen artean saltzeko edo banatzeko ardura duten entitateek, diru-itzulketa egitean.

3.a.- Atxikipena aurreko puntuetan azaldu bezala egin behar ez bada, eskualdaketa egiten duen edo diru-itzulketa eskuratzen duen bazkide edo partaidea egongo da behartuta konturako ordainketa egitera. Konturako ordainketa hori Erregelamendu honen 54.4, 55.3 eta 56.3 puntuetako arauetara jarraituz egin beharko da."

3.- Honela geratuko da idatzirik 56. artikulua hemendik aurrera:

"56. artikulua.- Atxikipenen eta konturako sarreraren ehunekoak.

1.- Atxikipena edo konturako sarrera %18ko portzentaian egin behar da oro har.

2.- Hiri ondasun higigarrien errentamendu eta azpi-errentamenduen kasuetan, ehunekoak %17 izango da.

Ehuneko hori bitan zatituko da, errentak Ceutan, Melillan edo haien menpeko lekuetan dauden hiri ondasun higiezinetatik badatoz, lurralde horietan helbidea duten entitateek lortu badituzte edo leku horietan establezimendu edo sukurtsal bidez diharduten entitateak badira.

3.- Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetza edo akzioen itzulketa edo eskualdaketen kasuan, %20 izango da.

4.- Errentak irudia ustiatzeko eskubidearen lagapenetik edo hura erabiltzeko baietza edo baimenetik baldin badatoz, %25 izango da."

Xedapen iragankor bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren errejimen berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako errejimen bereziari uko egiteko eta errebokatzeko epea.

1.- Uko egiteko eta errebokatzeko epea 2000ko martxoaren 31n amaituko da, 2000. urterako baldin badira. Uko egiteko epe hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu zuen Foru Dekretuak, apirilaren 27ko 124/1993 zenbakikoak, 33. artikulua 2. puntuaren bigarren paragrafoan aipatzen dena da.

Aurreko paragrafoan esandakoa ez da oztopo izango Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua 33. artikuluko 2. puntuaren hirugarren paragrafoan aipatutako ukoak egiteko.

2.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren errejimen berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako errejimen bereziari 1999ko abenduan aurkeztutako ukoak aldi baliodunetan aurkeztuta daudela ulertuko da.

Hala eta guztiz, aurreko paragrafoak eragiten dieten subjektu pasiboek aldaketa egin ahal izango dute aurreko 1. atalean esandako epean.

Xedapen indargabetzailea

Foru Dekretu hau eragina izaten hasten denetik aurrera haren kontrakorik adierazten duten xedapenak indargabe geratuko dira, maila bera edo apalagoa baldin badute.

Azken xedapen bakarra.- Indarrean jartzea.

Foru Dekretu honetan xedatutakoa Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarretan eta 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izango du.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko urtarrilaren 18a.— Diputatu nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBIA.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

ANUNCIOS**DEPARTAMENTO DE HACIENDA,
FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

DIRECCION DE HACIENDA

*Servicio de Tributos Indirectos - IVA***93**

Por la Oficina Gestora del Impuesto sobre el Valor Añadido ha sido remitida a los sujetos pasivos que a continuación se detallan, notificación de actos administrativos relacionados con este Impuesto, no habiendo sido posible practicar la notificación personal a los interesados.

Relación de sujetos pasivos y actos administrativos que podrán pasar a recogerse en la Oficina Gestora del Impuesto:

NOMBRE/DENOMINACION SOCIAL; N.I.F.; PERIODO-EJERCICIO
PRUDENCIO CASTAÑO CISNEROS; 16.441.129; EJS. 1995 y 1996
ASISTENCIA RIS S.L.; B-01.152.750; EJS. 95, 96, 97 y 98
VICENTE PEREZ SAN VICENTE; 16.201.522; EJS. 95, 96 y 97
S.COOP. DE VIVI. NUEVA DENTRO 13; F-01.175.298; EJS. 97 y 98
RAIMED S.L.; B-01.056.340; EJ. 1997
LACTEOS HEREDIA S.L.; B-01.017.623; EJ. 1998

Examen del expediente administrativo: Los sujetos pasivos anteriormente relacionados disponen de un plazo de diez días, contados a partir del siguiente al de la publicación de este anuncio, para examinar el expediente administrativo en las dependencias administrativas.

De los actos administrativos referenciados en este anuncio resulta deuda tributaria. Esta deuda tributaria deberá hacerse efectiva en las Oficinas de Hacienda, sitas en la calle Samaniego número 14 de Vitoria-Gasteiz, o en cualquier entidad bancaria o Caja de Ahorros dentro de los quince días hábiles siguientes a partir de la finalización del plazo de diez días fijado para el examen del expediente administrativo.

Recursos: Contra el acto administrativo objeto de este expediente se podrá interponer recurso de reposición ante la Oficina Gestora del Impuesto sobre el Valor Añadido o, alternativamente, reclamación económico-administrativa ante el Organismo Jurídico Administrativo de Alava, dentro del plazo de quince días contados a partir del siguiente a la finalización del plazo de diez días fijado para el examen del expediente.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de enero de 2000.— La Jefe de Servicio de Tributos Indirectos, ANA M^a ZUBIA AGUILLO.

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA,
FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

DIRECCION DE HACIENDA

*Servicio de Tributos Indirectos-IVA***94**

Por la Oficina Gestora del Impuesto sobre el Valor Añadido ha sido remitida a los sujetos pasivos que a continuación se detallan, notificación de actos administrativos relacionados con este Impuesto, no habiendo sido posible practicar la notificación personal a los interesados.

Relación de sujetos pasivos y actos administrativos que podrán pasar a recogerse en la Oficina Gestora del Impuesto:

NOMBRE/DENOMINACION SOCIAL; N.I.F. ; PERIODO/EJERCICIO
S.A.T. N^o 855; F-01.032.077; EJ. 1997
J. LUIS MOURE MARTINEZ; 35.456.749; EJ. 1999
ENKA ARANZABAL CONDE; 34.087.389; EJ. 1997

Examen del expediente administrativo: Los sujetos pasivos anteriormente relacionados disponen de un plazo de diez días, contados a partir del siguiente al de la publicación de este anuncio, para examinar el expediente administrativo en las dependencias administrativas.

Recursos: Contra el acto administrativo objeto de este anuncio se podrá interponer recurso de reposición ante la Oficina Gestora del Impuesto sobre el Valor Añadido o, alternativamente,

IRAGARPENAK**OGASUN FINANTZA ETA
AURREKONTU SAILA**

OGASUN ZUZENDARITZA

*Zeharkako Zergen Zerbitzua - B.E.Z.***93**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Bulego Kudeatzaileak jarraian zerrendatzen diren subjektu pasiboei Zerga honekin lotutako ekintza administratiboen jakinarazpena bidali dizkie, subjektu pasibo horiei jakinarazte pertsonala egitea ezinezkoa izan delarik.

Subjektu pasiboen eta Zergaren Kudeaketa Bulegoan jaso ahal izango diren administrazio egintzen zerrenda.

IZENA/SOZIJETATE IZENA - I.F.Z. - ZERGALDIA-EKITALDIA

PRUDENCIO CASTAÑO CISNEROS; 16.441.129; 1995 eta 1996 EKIT.
ASISTENCIA RIS S.L.; B-01.152.750; 95, 96, 97 eta 98 EKIT.
VICENTE PEREZ SAN VICENTE; 16.201.522; 95, 96 eta 97 EKIT.
S.COOP. DE VIVI. NUEVA DENTRO 13; F-01.175.298; 97 eta 98 EKIT.
RAIMED S.L.; B-01.056.340; 1997 EKIT.
LACTEOS HEREDIA S.L.; B-01.017.623; 1998 EKIT.

Administrazio espedientearen azterketa: Arestian aipatutako subjektu pasiboei hamar eguneko epea izango dute, iragarpen hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, administrazio espedientearen administrazio bulegoetan aztertzeko.

Iragarpen honetan aipatutako administrazio egintzetatik zerga zorra sortzen da. Zerga zor hori Vitoria/Gasteizko Samaniego kaleko 14.enean dagoen Ogasun Bulegoetan edo beste edozein Aurrezki Kutxatan ordaindu beharko da. Horretarako epea hamabost eguneko izango da, espedientearen aztertzeke jarritako hamar eguneko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

Espedienteak helburu duen administrazio ekintzaren aurka birjarpen errekurtsua jarri ahal izango da Balio Erantsiaren gaineko Atalaren aurrean edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa, Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen. Horretarako, hamabost eguneko epea izango da, espedientearen aztertzeke zehaztu den hamar eguneko epea bukatu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko urtarrilaren 5a.— Zeharkako Zergen zerbitziburua, ANA M^a ZUBIA AGUILLO.

**OGASUN, FINANTZA ETA
AURREKONTU SAILA**

OGASUN ZUZENDARITZA

*Zeharkako Zergen Zerbitzua - B.E.Z.***94**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Bulego Kudeatzaileak jarraian zerrendatzen diren subjektu pasiboei Zerga honekin lotutako ekintza administratiboen jakinarazpena bidali dizkie, subjektu pasibo horiei jakinarazte pertsonala egitea ezinezkoa izan delarik.

Subjektu pasiboen eta Zergaren Kudeaketa Bulegoan jaso ahal izango diren administrazio egintzen zerrenda.

IZENA/SOZIJETATE IZENA - I.F.Z. - ZERGALDIA-EKITALDIA

S.A.T. N^o 855; F-01.032.077; 1997KO EKIT.
J. LUIS MOURE MARTINEZ; 35.456.749; 1999KO EKIT.
ENKA ARANZABAL CONDE; 34.087.389; 1997KO EKIT.

Administrazio espedientearen azterketa: Arestian aipatutako subjektu pasiboei hamar eguneko epea izango dute, iragarpen hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, administrazio espedientearen administrazio bulegoetan aztertzeko.

Errekurtsuak: Iragarpen honek helburu duen administrazio espedientearen aurka birjarpen errekurtsua jarri ahal izango da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atalaren aurrean edo, bes-